

GARBIKETA LANAK

Jarraian, garbiketa lanak egiten dituzten langileek maiz izaten dituzten arriskuak eta haiek saihesteko hainbat neurri bildu ditugu:

PERTSONEN ERORIKOAK MAILA BEREAN:

- Solte dauden kableak bildu.
- Igarobideak libre utzi.
- Abisuak jarri garbitu berri diren eta langileek edo erabiltzaileek zapal ditzaketen zonetan.
- Berehala jaso eroritako ura edo bestelako substantzia oro.
- Kontuz ibili maila desberdinekin, oztopoekin eta koskekin.
- Ez ibili korrika eskaileretatik; egin korrika edo ez egin saltatu mailak.
- Erabili zola irristagaitza duten eta orpoari ongi eusten dioten laneko oinetakoak.



OBJEKTUEKIN EDO ERREMINTEKIN KOLPEAK EDO EBAKIAK



- Edozein objektu kendu aurretik edo trapua pasa aurretik, aztertu ongi dagoen (mozten duten ertzak, iltzeen edo ezpalak dituen, etab.) erori edo mozketak edo sastadak saihesteko.
- Ez itzazu sartu eskuak zakarrontzietan edo edukiontzietan hondakinen bolumena gutxitzeko.
- Hautsitako beira ez da inoiz jasoko eskuekin; erabili eskuila eta biltzekoa. Ontzi zurrunak izatea gomendatzen da hautsitako beirak eta mozten edo sastatzen duten beste objektuak biltzeko.

KONTAKTU ELEKTRIKOAK

- Luminariak garbitzean, egiaztatu korronterik ez dagoela.
- Ez erabili edo ukitu gailu edo etengailu elektrikorik eskuak bustita dituzula edo oinutsik zaudela, nahiz eta lurra lehorra egon.
- Ez pasatu lanbasa bustia dorretxoan, oinarri anitzen edo konektatutako larakoen oinarrietatik.

ETXEAN ERABILTZE DIREN PRODUKTU KIMIKOAK ERABILTZEAREN ONDORIOZKO ARRISKUAK

- Edozein produktu erabili aurretik, irakurri produktuaren etiketan haren arriskuak eta hartu beharko diren segurtasun-neurriak.
- Ontziek haiei dagozkien etiketak izan dezatela eskatu. Produktuak jatorrizko ontzietan gordeko dira. Beste ontzi batera igaroz gero, behar bezala etiketatuko dira ontzi berrietan.
- Inoiz ez sartu produktu kimikorik edarien edo janarien ontzietan, etiketa jartzen bada ere.
- Ez nahastu garbiketa produktuak, gas arriskutsuak eratu daitezkeelako edo beroa askatzen duten erreakzioak eman ditzaketelako, eta haien zipriztinek erreturak eragin baititzakete.
- Garbitzeko produktuak erabiltzen diren bitartean eraso kimikoen aurkako babes-eskularruak erabili.
- Aireztatu leku txikiak (komunak / aldagelak) garbitzen diren bitartean eta ondoren.
- Ontziak ongi itxita, ordenatuta, leku lehorretan eta bero-iturrietatik urruti gorde.
- Ez jan, edan edo erre garbiketa produktuak erabiltzen ari zaren bitartean.





ERAGILE BIOLOGIKOekin KONTAKTUAN EGOTEA

- Ez sartu eskuak tangetan, zakarrontzietan edo barrukoa ikusten uzten ez duten ontzietan.
- Garbitu eskuak lanak egin aurretik eta ondoren, ur eta xaboi ugarirekin.
- Erabili mikroorganismoaren aurkako babes-eskularruak komunak eta aldagelak garbitzeko.

JARRERA BEHARTUAK

- Laneko baliabide ergonomikoak erabiltzea gomendatzen da: palankadun xukadera duten ontziak, gurpildunak; lanbasa eta erratzen neurri egokiko makilak erabili, jarrera ezegokiak saihesteko.

NORBERE BABESERAKO EKIPOAK

<p>Segurtasun oinetakoak (zola irristagaitzarekin)</p>		<p>Mikroorganismoaren aurkako babes-eskularruak Eraso kimikoen aurkako babes-eskularruak</p>	
--	---	--	---